

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak negozio-ereduak funtziona dezan egin beharreko jarduerak dira. Horiek ahalbidetuko digute gure balio proposamena sortu eta bezeroengana iritsi ahal izatea; baita bezero horiek mantendu eta harremanetan egotea, eta azkenik diru-sarrerak lortzea.

Gure produktu izango den balio proposamena aurrera eramán ahal izateko, eta Genius Lens enpresaren ibilbidea antolatzeko, jarduerak bi multzo desberdinetan sailkatu ditugu; beste enpresen esku utziko diren jarduerak, eta gure enpresa propioak beteko dituen jarduerak.

Balio proposamenaren ekoizpenari dagokionez, jarduerak gure lanaren eta kanpoko enpresen artean tartekatuko ditugu. Produktua garatzea [Monouso](#) eta [Ibermática](#) enpresen esku utziko dugu, ez baitugu ekoizpenean zuzenean parte hartu beharrik; baina produktu hori ekoizteko garaian kontuan hartu beharko dituzten diseinuak guk eskeinitako webgunean bezeroek erabakitakoak izan beharko dira.



Bezeroekin harremanetan jartzea ere guk geuk egingo dugu, aurretik aipatu bezala, webgune bat egingo baitugu. Webgune horrek erosketa egitea ahalbidetuko du, baina horretaz gain enpresarekin eta bere kideekin harremanetan jartzeko aukera emango du, partaide bakoitzaren informazioa eta kontaktua eskainiz.

Produktua bezeroarengana iristea ere kanpoko enpresa baten eskuetan utziko dugu, garraio enpresak kontratatuko baititugu kasu gehienetan baliozko proposamena bezeroarengana iristeko, gure gertuko leku bat ez bada behintzat norakoa.



Garrantzitsua da ere salerosketa egin ahala gerta daitezkeen arazoei aurre egitea, eta bezeroek eduki ditzazketen problemak konpontzea. Hori guztia guk, Genius Lens enpresa eta bere partaideek egingo dugu. Guk bakarrik dakigu etorkizunerako gure enpresarentzat zer nahi dugun, eta horregatik; gu arduratuko gara egin behar diren aldaketak egiteaz. Horrela, bezeroek arazoak izaterakoan guk erantzungo diegu, beraien beharretara eta gure baldintzetara hoberen egokitzen den soluzio bat eskaintzeko.

Azkenik, interneteko plataformako edo sareko jarduerak kanpoko enpresekin batera egingo ditugu. Gure plataforma izango den interneteko webgunea guk kudeatuko dugu, nahiago baitugu guk nahi dugun irudia eskaini bezeroen aurrean. Gestioa nola egin guk erabakiko dugu, zer atal eskeini webgunean, nola egin erosketa. Horrela, ziurtatuko dugu webgune horrek ez digula zailduko beste enpresekin ditugun adostasunak mantentzea.

Hala ere, webgunearen mantenua informatikoen esku utziko dugu, ez baitio balio berezirik ematen gure enpresari, eta egokiagoa da arlo horretan espezializatuta dagoen norbaitek eramatea.

Bestalde, gure produktua eta enpresa ezagunagoa egiteko plataforma promozionatuko dugu. Argi daukagu horretarako marketin enpresa batekin sinatuko dugula, baina gure ideia beste sare sozialetan eta webguneetan publizitate da.

Ondoren, gure salmenten arabera, eta erosketa horien jatorriaren arabera, marketing plana moldatuko dugu, egoerara hobeto egokitu ahal izateko.